


Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 0,8 jaitsi dira 2020ko martxoan, aurreko hilabetearekin alderatuta

**Aurreko urtearekin alderatuta (2020ko martxoa 2019ko martxoarekiko),
kostuak % 1,1 igo dira**

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea % 0,8 jaitsi da 2020ko martxoan aurreko hilaren aldean, eta hilabete horretarako urte arteko tasa % 1,1ekoa da, Eustatek emandako datuen arabera.

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, lehengaien kostuak % 1,0 jaitsi dira, eta eskulanaren kostuak ez du aldaketarik izan (% 0,0).

Martxoan, Etxegintzaren azpisektoreak % 0,6 egin du behera hilabete artean lehengaien kostuan, eta Obra Zibilaren azpisektoreak, berriz, % 2,8 egin du behera. Urtetik urterako bilakaeran, bi azpisektore horiek zeinu desberdinak dituzte; izan ere, Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,1 igo dira, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 0,5 jaitsi dira.

2020ko martxoan, 2019ko martxoarekin alderatuta, sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioetan nabarmentzekoak dira sektore hauetako hazkundeak: *Mineral ez-metalezkoak*

(% 3,5eko igoera), *Material elektrikoa* (% 1,6koa) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 1,2koa). Alderantzizko norabidean, lehengaien prezioak murriztu egin dira hauetan: *Petrolioia fintzea* (% 26,3 behera), *Energia Elektrikoa eta gasa* (% 2,1eko jaitsiera) eta *Makineria* (% 1,7koa).

EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAKO KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2020ko Martxoa

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	106,1	-0,8	1,1	0,9
Eraikinak	106,3	-0,5	1,3	1,1
Obra zibila	105,6	-2,2	0,1	-0,3
LEHENGAIA	105,5	-1,0	0,8	0,6
Eraikinak	105,7	-0,6	1,1	0,9
Obra zibila	104,8	-2,8	-0,5	-1,0
LAN-ESKUA	108,2	0,0	1,8	1,8

Oinarria 2015=100
(p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62